

PROPOSAMENEN DEIALDI IREKIA

GAU IREKIA 2019

2019/12/14 - VIII Edizioa



¿ZER DA GAU IREKIA?

Gau Irekia kultur ekitaldi partehartzailea da, San Frantzisko, Bilbo Zaharra eta Zabala auzoetan gauzatzen dena. Auzo Garaietako kultur eta gizarte ekimenak ikusaraztea eta nabarmentzea du helburu; tokiko kulturaren herritarren partehartzea sustatzea eta bilboko eragileen arteko kolaborazioa piztea.

Deialdi ireki baten bidez, disziplina anitzeko aktibitateak programatzen dira orotariko espazioetan (kultur eta arte guneak, dendak, elkarleen egoitzak, kalea, etab.).

[Sarean](#) elkarrearen proiektu aipagarriena da, urte osoan zehar egiten diren ekintzen erakuslea. Elkarlana oinarrian duen jaialdia, hiritarren partehartzeaz elikatzen dena eta gure auzoetan kohesioa eta jasangarritasuna sustatzeko kultur eraldatzaileaz baliatzen dena.

Aurreko urteetako bideoak:

[Gau Irekia 2018](#) - [Gau Irekia 2017](#) - [Gau Irekia 2016](#) - [Gau Irekia 2015](#) - [Gau Irekia 2014](#) - [Gau Irekia 2013](#)

GAU IREKIA

HELBURUAK

- Bilbo Zaharrean, San Frantziskon eta Zabalan aurkitzen den kultur eta gizarte aktibitatea ikusarazi eta nabarmentzea.
- Tokiko artisten lana zabaltzea.
- Orotariko artista eta eragileen arteko erlazioa eta kolaborazioa sustatzea.
- Bizilagunengan auzoko kultur ekimenetan parte hartzeko grina piztea.
- Kulturarteko eta belaunaldiarteko erlazioak sustatzea.

¿NORK HAR DEZAKE PARTE?

Gau Irekia ekitaldi partehartzailea da, herritarra, ondorengo pertsoneri zuzentzen den deialdi irekia duena:

- Pertsona edo kolektiboak: artistak, gizarte ekintzaileak, etab.
- Espazioak: elkarteak, lokalak, dendak, tabernak, erakusketa gelak, tailerrak, kaleak, plazak, etab.

Gau Irekian burutzen diren aktibitateetan parte hartzea librea izan beharko da, ekintzak dohakoak izan beharko dira.

LAGUNTZA TEKNIKO ETA EKONOMIKOA

Behar den kasuetan, Sareanek oinarrizko baliabideak eskainiko ditu aktibitateak aurrera eramateko (argiztapena, proiektzioak, soinua).

Sareanek beregain hartuko du bahimen publikoak eskatzearen ardura (beharrezkoa denean). Gainera, programaren barnean aurkitzen diren aktibitate guztiak bere komunikazio kanalen bidez zabalduko ditu.

Partehartzaile bakoitzak 300€ (BEZa barne, PFEZa kanpo) eskatu ahal izango ditu gehienez, aktibitate bakoitzaren diru laguntza gisa. Ordainketa abenduaren 14aren osteko asteetan egingo da, eta beharrezkoa izango da aktibitatearen gastu guztiak biltzen dituen faktura bakarra aurkeztea.

Sareanek hasiera batean aurkezturiko aurrekontuaren aldaketa proposatzeko aukera izango du, aktibitate guztien ordainketari egokitze aldera.

GAU IREKIA

NOLA PARTE HARTU

A- Badakit zein aktibitate egingo dudan eta badakit zein espaziotan egingo dudan (kalean burutuko diren aktibitateak barne)

1. Aktibitatearen dossier laburra prestatu: PDF formatuan aurkezturiko dokumentua, proposamena eta partehartzaileen esperientzia azaltzeko.
2. Bidali zure aktibitatearen informazioa urriaren 13a baino lehen, [inprimaki honen](#) bitartez. Honez gain, bidali aktibitatearen dossierra gauirekia@sarean.info helbidera mezuaren gaian ekintzaren izena zehaztuz.

B- Badakit zein aktibitate egingo dudan baina espazio baten beharra daukat

1. Saiatu zaituz gure auzoetan erakargarria iruditzen zaizun espazio bat bilatzen eta jarri zaituz kontaktuan harekin zure ekintza proposatzeko. Lana erraztuko dizuten zenbait dokumentu:
 - [Listado de asociaciones del barrio](#)
 - [Listado de espacios \(bares, restaurantes, tiendas, etc.\) que han participado en otras ediciones](#)
 - [Red de Intercambio de Espacios](#)
 - [Catálogo de espacios y prácticas artístico culturales de la investigadora Oihane Sánchez Duro](#)

**Dokumentu hauek partehartzaileen eskura daude informazio tresna gisa. Dokumentuetan agertzeak ez du esan nahi espazioek Gau Irekian partehartzeko asmoa adierazi dutenik. Aktibitatea proposatzen duenaren eta espazioaren artean erabaki beharrekoa da hori.*

2. Aktibitatearen dossier laburra prestatu: PDF formatuan aurkezturiko dokumentua proposamena eta partehartzaileen esperientzia azaltzeko.
3. Aktibitatea burutzeko espazioa aurkitu baduzu edo espazioa aurkitzeko gure laguntza behar baduzu, bidali zure aktibitatearen informazioa urriaren 13a baino lehen, [inprimaki honen](#) bitartez. Honez gain, bidali aktibitatearen dossierra gauirekia@sarean.info helbidera mezuaren gaian ekintzaren izena zehaztuz.

C- Nire espazioa eskaini nahi dut bertan aktibitate bat gauzatu dadin

1. [Bete ezazu inprimaki hau](#) urriaren 13a baino lehen (dossierra bidaltzea ez da beharrezkoa).

GAU IREKIA

AUKERAKETA IRIZPIDEAK ETA PARTEHARTZEAREN BERRESPENA

Ekitaldiak dituen baliabide urriak direla eta, Sareanek ondorengo irizpideak kontutan hartuta aukeratuko ditu aktibitateak:

- Gau Irekia-ren helburuekin bat egitea (deialdiaren hasieran zehaztuak)
- Aktibitatearen kalitatea eta irudimena
- Bideragarritasun teknikoa
- Aurkeztutako aktibitatearen eta aurrekontuaren arteko proportzionaltasuna

Deialdia itxi eta hurrengo egunetan, Sareanek izena eman duten pertsona orori email bana bidaliko die berrespenaren inguruko informazioa emateko, partehartzea baieztatzeko eta aktibitatea teknikoki eta ekonomikoki babestua izan daitekeen zehazteko.

ANTOLAKUNTZA

Gau Irekia [Sarean](#) elkarte sozio-kulturalak sorturiko eta antolaturiko ekitaldia da.

2019ko Gau Irekia aurrera eramateko Sareanek Eusko Jaurlaritzaren, Bilboko Udaleko Kultura Sailaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta BBK Gizarte-proiektuak ekimenaren diru laguntza jaso du.

ZALANTZAK ETA IRADOKIZUNAK

Deialdiaren inguruko zalantzaren bat izanez gero edo edizio honetarako iradokizunen bat izanez gero, jar zaitez gurekin kontaktuan e-mail edo telefono bidez:
gauirekia@sarean.info Marina 717 70 55 24 / Sandra 629 01 35 24

Nahi izanez gero, aurrez aurreko bilera antolatzeko prest gaude ere.

GAU IREKIA